

XVIII. ANTIXINTXIKA LAISTERKETA (SORALUZE-BERGARA)

ANTXINTXIKA TRIATLOI TALDEAK, Gipuzkoako kirol egokituko federazio, Bergarako eta Soraluzeke udalen laguntzarekin batera, XVIII. Antxintxika lasterketa antolatuko dute, korrika, patin, eta murriztasun fisiko-sikikoak duten pertsonentzat. Frogak azaroaren 2an ozpatuko dira 10 km-tako ibilbidea osatuz . 16 urtetatik aurrerako lasterkarientzat mugatzen da.

1.-IZEN EMATEAK

- WEB ORRIA: www.kirolprobak.com
- IZENEMATE EPEA:
Azaroaren 1 ean 15:00 etan amaituko dira.
Izenematea egin ondoren, ez da dirurik itzuliko.
Ezin izango da izen ematea egunean bertan egin.
550 parte hartzaile izango da kopuru máximoa.

2.-MAILAK

KORRIKA:

GIZONEZKO ETA EMAKUMEZKOAK:

ABSOLUTUA:39 urterarte. BETERANOAK:40 urtetik aurrera.

PATINAK (Araudia anexoan):

GIZONEZKO ETA EMAKUMEZKOAK

DESGAITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONAK:

GIZONEZKO ETA EMAKUMEZKOAK

3.-DORTSALAK

- Dortsala bistan Joan beharko da tolestatu gabe,eta daraman publizitatea ezingo da estali edo modifikatu.
- Dortsalik gabe parte hartzea,dortsala tolestatuta edo modifikatuta korritzeak,automatikoki deskalifikazioa ekarriko du.
- **DORTSAL BANAKETA**
 - Dortsalak Bergarako seminarioan jaso behar dira. **Ez dira dortsalak Soraluzean banatuko.**
 - <https://maps.app.goo.gl/pCxuxE8fhVDi4LWS8>



4.-SARIAK

KROSA

- 1. ABSOLUTUA: (Gizonezko eta emakumezko): Txapela eta oparia
- 2º. ABSOLUTUA: (Gizonezko eta emakumezko): Domina eta oparia
- 3º. ABSOLUTUA: (Gizonezko eta emakumezko): Domina eta oparia

1.BETERANOA: +40 urte (Gizonezko eta emakumezko): Domina

1.BERGATARRA (Gizonezko eta emakumezko): Domina

1. SORALUZETARRA (Gizonezko eta emakumezko): Domina

MIKEL ETA OLIVER SARIA(1.go Debagoiendarra: Gizonezko eta emakumezko)

LASTERKETAKO BETERANOENARENTZAT, SARI BEREZI BAT EGONGO DA.

PATINAK.

1.: (Gizonezko eta emakumezko): Txapela eta oparia

2°. (Gizonezko eta emakumezko): Domina eta oparia

3°. (Gizonezko eta emakumezko): Domina eta oparia


DESGAITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONAK

Parte hartzaile guztiek oroigarri bat jasoko dute.

5.-IRTEERA

SORALUZEN

- Etxaburueta kalean <https://maps.app.goo.gl/9CDST4g94P1yqcv97>



6.-AUTOBUSAK:

- Guztiontzat autobusa egongo da. Izen ematearekin batera aukeratu ahal izango da autobusaren ordutegia.
- Parte-hartzaile bakoitzari pultsera bat emango zaio, autobusaren ordutegiarekin.
- **OHARRA:**
 - Parte-hartzaile kopurua ikusirik, ordutegiak errespetatzea nahitaezkoa da.
- **ORDUTEGIAK:**
 - 1. Txanda → 15:00
 - 2. Txanda → 15:25
 - 3. Txanda → 15:50
 - 4. Txanda → 16:15

<https://maps.app.goo.gl/MFmcPw72vMBhUkiW9>



7.-POLTSAK:

- Nahi duten partaideek,beraien arropa poltsa itxi batean utzi ahal izango dute. Bertan beraien dortsak zenbakia ipini beharko dute dortsalarekin batera emango den pegatina ipiniz.
- Poltsak **irteera puntuan** utzi ahal izango dira. Poltsak 16:40erako utzi beharko dira eta ordu horretan furgoneta batek eramango ditu KONTSIGNA PUNTURA BERGARAN.
- Irteerara, motxila txikia eraman. Motxila haundia kontsignan utzi Soraluzera joan aurretik mesedez.



SORALUZEN



8.-IRTEERA ORDUA (Soraluzen):

Froga hasiera: HAND-BIKE:
PATINAK:
KROSA:

16:30 ETAN.
16:45 ETAN
17:00 ETAN

9.-IBILBIDEA

Track-a:

https://www.google.com/maps/d/edit?mid=1q2LxEfRJ55iv89-yM_YuEEAa8ibudNI&usp=sharing

Puntu kilometrikoak adierazita egongo dira.

Debekatuta egongo da bizikletaz edo beste ibilgailu batez laguntzea.

Erratz furgoneta: Erratz furgoneta egongo da lasterketa utzi beharko lukeenarentzat

10.-ANOAGUNEA

Antolakuntzak 6.km an eta helmugan

11.-HELMUGA ETA HELMUGA INGURUA

Helmuga puntua Irala kalean egongo da.

Helmugatik seminaria joan beharko da, bertan izango baitugu hornikuntza gunea.

ADI!! Sorpresa pare bat egongo dira



12.-SENDAGILE ZERBITZUA ETA ASEGURUA.

Partaide guztiak izenematea egitearekin, aseguratuta egongo dira eta ibilbidean anbulantzia zerbitzua egongo da.

13.-GOMENDIOAK

1.- Antxintxika triatloi taldeak eta kirol egokituko federazioak,azterketa mediku bat egitea gomendatzen dute parte hartu aurretik.

2.-Lasai irten.

3.-Ez alferrik galdu hornikuntza, gogoratu atzetik datozenek behar gehiago eduki dezaketela. Garbiketa lanak errazteko, **MESEDEZ EZ BOTA BOTILAK IBILBIDETIK KANPORA ETA ZAKAR BAKOITZA BERE LEKUAN UZTEN AHALEGINDU.**

4.-Indarrak ondo neurtu,eta gogoratu hobe dela ezin denean uztea ondoren damutzea baino.

5.-Jende pilaketak ekiditzeko,ez zaitez gelditu helmuga pasa bezain pronto.

14.-UME ETA GAZTETXOENTZAT LASTERKETAK

15:00ETATIK AURRERA,8-12 URTE BITARTEKOENTZAT LAISTERKETAK EGONGO DIRA.

GAZTETXOEN FROGA HAUETAN PARTE HARTZEKO,BEHARREZKOA DA GURASOEN BAIMEN TXANTILOIA BETETZEA.HELMUGA PUNTUAN EGONGO DIRA TXANTILOIAK.

15.-DUTXAK ETA GURPILDUN AULKIENTZAT PARKING-A.

Dutxak Agorrosingo igerilekuetan eta seminarioan egongo dira.Eta gurpildun aulkientzat aparkalekua Seminarioko patioan.

Seminarioko aldagelen tamaina oso txikia da. Mesedez, saiatu kiroldegia erabiltzen.

16.-ZOKETA

PARTAIDE GUZTIEN ARTEAN ZOKETA
BOLONDRES GUZTIEN ARTEAN 2. ZOKETA BAT

Informazio telf. 636515218
Email: antxintxika@gmail.com

A.-PATIN-en ARAUDIA (EUSKARAZ)

- 1) 17. Edizio hau atleten araudi orokorrera mugatzen da, ondorengo puntuetan ezberdinduz.
 - a) Desplazamendua lerroko patin bidez egingo da soilik.
 - b) Parte hartzaileen gutxieneko adina 16 urtekoa izan beharko da.
 - c) Kaskoaren erabilera **derrigorrezkoa** da. Beste babesgarri batzuen erabilera gomendatzen da.
 - d) Dortsala atzekaldean joan beharko da
 - e) Lehen atletak patinatzaileak pasatu ezkerro, hauek lasterketa utzi beharko dute.
 - f) Patinak ez duten edozein ibilgailuren laguntza zein haien atzetik joatea debekatuta egongo da. Egiteak **kanporatzea** ekarriko du.
 - g) Patinatzaile batek gurpildun aulki bat gainditu behar duen momentuan, abisatu eta enbarazu egin gabe pasatu beharko du.
 - h) Lasterkari oro, arauak betetzera konprometitzen da, batez ere antolatzaileek kanporatze aginduak ematerako orduan.